

ZUZENBIDEKO PROFESIONALAK TREBATZEN: euskarazko baliabideak eta terminologia

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Maiatzak 2, 9, 16 eta 23	IKASGELA/ TOKIA	M2 eta M1 gelak (IVAP) San Bartolome,28 Donostia
IRAUPENA	10 ordu	ORDUTEGIA	10:00-12:30
MATRIKULA EPEA	Apirilaren 15era arte	ONIRITZI EPEA	Apirilaren 22ra arte
IKASLE KOPURUA	15 gehienez ere	HARTZAILEAK	Zuzenbideko profesionalak
IRAKASLEA	Aloña Iribar	MATERIALA	Ikasgelan banatuko da
DISEINUA	UZEI	AZPIEGITURA	Ordenagailua eta arbela

ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU
OROKORRAK**

Zuzenbideko profesionali euskaraz jarduteko beharrezkoak zaizkien tresnen berri ematea, eguneroko jardunean euskaraz egiten laguntzea.

**HELBURU
ZEHATZAK**

Zuzenbideko profesionalen lanaren oinarriko tresnak hizkuntza eta hitza direnez:

- Hizkera juridikoa lantzeko baliabideen berri ematea
- Hizkuntza-trebakuntza eskaintzea.
- Euskarazko terminologia juridikoa lantzea.

Laburbilduz, hizkera tekniko hori zehaztasunez erabiltzen ikastea.

GAITASUNAK

Ikaslea gai izango da:

- Testu juridiko bat euskaraz, zehaztasun osoz, idazteko.
- Testu juridiko bat idaztean, zalantzarik izanez gero, irtenbide egokiak aurkitzeko.
- Euskarazko oinarriko terminologia juridikoa behar bezala erabiltzeko.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

Ikastaroan saio teorikoak eta praktikoak emango dira. Ikasleei beharrezko diren ezagutza teorikoak emango zaizkie, eta, ondoren, ariketa praktikoak egingo dira, testu errealekin lan eginez.

ZUZENBIDEKO PROFESIONALAK TREBATZEN: euskarazko baliabideak eta terminologia

• Hizkera juridikoa lantzeko Interneten dauden hizkuntza-baliabideak aztertuko dira, eta horiek kontsultatzen erakutsiko da.

PROGRAMA

- Prozedura judizialaren eremuan erabiltzen diren idazkiak aztertuko dira, eta idazki horiek idazterakoan profesionalak dituzten zalantzak argituko dira.
- Prozedura judizialaren eremuan erabiltzen den terminologia aztertuko da, eta hiztegi terminologiko juridikoen berri emango da.

EBALUAKETA

- Ikastaroko helburu orokorrak eta zehatzak lortu direla bermatzea.
- Ikasleak saioetan parte hartu duela eta ariketak egin dituela bermatzea.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

% 80ko bertaratzea, eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

114€

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zka.